

En Lintzoain, en la Casa Consistorial del Valle de Erro, siendo las 18,30 horas, del día 8 de mayo de 2019, se reunió el M. I. Ayuntamiento del Valle de Erro al objeto de celebrar sesión ordinaria, en primera convocatoria, con la asistencia de los Sres. Concejales D. Álvaro Villanueva Azcarate, D. Jesús Esteban Juanarena Apesteguía, D. Miguel Echamendi Hernandez, D. Joaquín María Martínez Choperena, D. Joseba Martínez Rey y D. Eduardo Urtasun Vidondo, bajo la presidencia del Alcalde y D. Enrique Garralda Erro, asistiendo como Secretaria la de la Corporación Dña. Marisol Ezcurra Irure.

Previo al inicio del primer punto del orden del día, el concejal del Grupo EH-Bildu, Sr. Martínez Rey, informa que va a grabar la sesión.

### **1.- APROBACIÓN ACTAS SESIÓN DE 6 Y 27 DE FEBRERO, Y 2 DE ABRIL DE 2019**

Toma la palabra el concejal Sr. Martínez Rey, que da lectura a la contestación que su grupo ha preparado en respuesta al escrito de la Secretaria en relación con las actas, *“A 8 de mayo de 2019, en la casa del valle, Lintzoain.*

*En contestación al escrito presentado `por D<sup>a</sup> Marisol Ezcurra Irure en la sesión del veintisiete de febrero de dos mil diecinueve, el grupo municipal de EH Bildu quiere manifestar lo siguiente:*

- *Queremos reflejar que nuestro grupo no supo de la presentación, ni tuvo constancia, del documento presentado hasta la misma sesión del 27 de febrero de 2019.*
- *En nuestra opinión las actas en puntos concretos, reiteramos, en puntos concretos, no reflejan la realidad de lo ocurrido y lo seguimos reiterando.*
- *Desde nuestro punto de vista u opinión, creemos que en aquellos puntos donde se a creado debate y controversia política, la manera de redactar el acta es subjetiva.*
- *Queremos remarcar que nuestro objetivo ni trabajo en esta institución se ha centrado en menospreciar o arremeter contra la secretaria u otros trabajadores. Siempre hemos velado por el buen funcionamiento de la institución. Hemos sido claros en reflejar nuestro punto de vista, reflejando la impotencia y en ocasiones el hartazgo con el tema de las redacciones.*
- *Desde Eh Bildu remarcamos, que las actas deberían estar redactadas en plazos mas cortos y que si el grupo de gobierno (AIVE) quisiera podrían grabar las sesiones en audio. De esta manera evitaríamos estar reiterando algo que tiene fácil solución.*
- *Por último, como bien sabe el grupo de gobierno y D<sup>a</sup> Marisol Ezcurra Irure, EH Bildu esta dispuesto ha hacer todo lo que este en su mano para mejorar el funcionamiento de esta institución, como hace tiempo que venimos manifestando. Dispuestos a ayudar para que mejore la transparencia, objetividad y difusión de las actas. No queremos perder mas tiempo en debates estériles que no solucionen el problema.*

*Creemos que este tema tiene fácil solución si todos ponemos voluntad para ello. EH Bildu Erroibar.”*

Toma la palabra el alcalde Sr. Garralda, que entiende que las actas se transcribe lo que se dice en la sesiones y las considera bien hechas.

En cuanto a las actas de fechas 6 y 27 de febrero, y 2 de abril de 2019, no hay nada que objetar y se aprueban por unanimidad.

## **2- CONOCIMIENTO DE RESOLUCIONES DE ALCALDÍA EMITIDAS DESDE EL 23 DE FEBRERO HASTA EL 30 DE ABRIL DE 2019.**

Informa el alcalde Sr. Garralda, del contenido de las resoluciones adoptadas desde el 23 de febrero hasta el 30 de abril de 2019. Dándose los concejales por enterados.

El concejal Sr. Martínez Choperena, solicita información sobre las siguientes resoluciones:

Res. nº 31/2019, relativa a paralización de obras. Se aclara que se emite la resolución decretando la paralización de obras porque se estaban haciendo sin licencia.

Res. nº 32/2019, relativa a justificación de normativa previa a la concesión de licencia de obras para construcción de vivienda, se le requiere una justificación porque lo que se presenta sobre ocupación máxima de edificación no se ajusta a la normativa del plan municipal. Se juntaron con el promotor y los arquitectos del promotor y parece que ya se ha resuelto el tema.

Res. nº 47, se trata de un cambio de titularidad de la actividad clasificada, la actividad es la misma pero cambia el titular, se trata de actualizar los datos y modificar la licencia de apertura a nombre de quien la ejerce, justificando a su vez mediante certificados el cumplimiento de las condiciones del local.

Res. nº 70, sobre modificación de resolución de ayudas al deporte. Las personas que solicitan inicialmente la ayuda al deporte, presentan documentación sobre las actividades deportivas realmente realizadas por lo que procede modificar la resolución inicial, ajustándola a las actividades deportivas ejecutadas.

Res. nº 75, se trata de notificar la obligación que tiene de abonar un canon por los RCD previo a la concesión de licencia de obras para reforma de edificio.

## **3.- APROBACION INICIAL CUENTAS 2018**

Informa el alcalde Sr. Garralda, de conformidad con lo ya explicado en Comisión de Cuentas, del contenido de las Cuentas municipales correspondientes a 2.018, siendo relevante que a lo largo del año ha habido un equilibrio entre ingresos y gastos y que el remanente de tesorería para gastos generales asciende a 1.014.636,04 euros, si bien se informa respecto a la Ley de Estabilidad Presupuestaria que no se cumple con el principio de la regla de gasto ni con el principio de estabilidad presupuestaria, motivada por las inversiones que se han realizado a lo largo de este año, de carácter finalista, y que por tanto durante el ejercicio 2019 no van a tener lugar. En todo caso señalar que ha habido más ingresos ordinarios que gastos ordinarios, criterio imponente para seguir controlando la capacidad financiera de este Ayuntamiento. Así mismo, se adjunta por la Secretaria un informe y plan económico financiero que recoge esta situación.

Toma la palabra el concejal Sr. Martínez Rey que manifiesta que tras aclarar con la Secretaria algunas cuestiones, como por ejemplo la subvención de euskarabidea que se ha incluido en otra partida, su grupo no tiene impedimento alguno para aprobar las cuentas de 2018.

Tras lo cual, la Corporación acuerda por unanimidad aprobar inicialmente el expediente de cuentas de 2.018 que obra en el expediente de la sesión, así como el plan económico financiero que se adjunta al expediente.

#### **4.- APROBACION INICIAL PRESUPUESTO 2019**

Toma la palabra el alcalde Sr. Garralda, que en cuanto al expediente de presupuestos del ejercicio 2019 también tratado en comisión, informa por un lado, que recoge las propuestas planteadas por los grupos que forman la corporación y por otro, que se ha elaborado siguiendo las directrices de la Ley de Estabilidad Presupuestaria. Se recoge las obras de pavimentación y redes en Esnotz, actuaciones forestales, infraestructuras ganaderas, etc.

Toma la palabra el concejal Sr. Martinez Rey, que estando de acuerdo con los presupuesto propone añadir una partida de 500 euros para personal de Turismo del Pirineo, modificando el presupuesto y equilibrándolo con la partida de Quinto Real.

En relación con este tema, se informa de que ha llegado una escrito de la mesa del Pirineo por el que se pospone al ejercicio 2020 la posible contratación de una persona a través de Cederna, dinamizadora del turismo en el Pirineo. Retoma la palabra el concejal Sr. Martinez Rey que manifiesta su malestar por lo que cobra, en este caso, la Caja Rural por las cuentas bancarias, comprometiéndose el alcalde a hablar con la Caja Rural sobre este asunto.

Tras lo cual, la Corporación acuerda por unanimidad, aprobar inicialmente el expediente de presupuesto del ejercicio 2019 que asciende a 1.360.191,59 euros, procediendo a su tramitación y publicación en el Boletín Oficial de Navarra.

#### **5.- APROBACION INICIAL PLANTILLA ORGANICA 2019**

Toma la palabra el alcalde Sr. Garralda que pasa a informar la plantilla orgánica del 2019.

Se acuerda por unanimidad lo siguiente:

1º.- Aprobar inicialmente la siguiente plantilla orgánica del año 2019, procediendo a su publicación en el Boletín Oficial de Navarra.

1.-Funcionarios:

Denominación del puesto: Empleado de Servicios Múltiples. Número de plazas:

1.1 Denominación del puesto: Empleado de Servicios Múltiples. Número de plazas: 1.

Forma de provisión: Concurso-oposición restringido (promoción interna). Nivel: D.

Condiciones de ejercicio: Activo. Complemento de nivel 15%: Complemento de puesto de trabajo 35,77% Jornada completa, Complemento de prolongación de jornada 10%, carnet de conducir clase B

- Relación nominal de funcionarios

E.S.M.: Don Xabier Zía Urrutia.

2.-Personal laboral fijo.

Denominación del puesto: Auxiliar Administrativo. Número de plazas: 1. Forma de

provisión: Concurso-oposición. Nivel: D. Condiciones de ejercicio: Activo.

Complemento de nivel: 12%, Complemento de puesto: 30.20%, Complemento de prolongación de jornada 10%, Jornada: 71,44%.

Denominación del puesto: Auxiliar Administrativo. Número de plazas: 1. Forma de provisión: Concurso-oposición. Nivel: D. Condiciones del ejercicio: Activo. Complemento de nivel: 12%, Complemento de Puesto: 30,20%, Complemento de prolongación de jornada 10%, Jornada: 71,44%.

Denominación del puesto: Empleado de Servicios Múltiples. Número de plazas: 1. Forma de provisión: Concurso-oposición. Nivel: E. Condiciones del ejercicio: Activo. Complemento de nivel: 15%. Complemento de Puesto de trabajo 8,77% Jornada: 29,33%.

- Relación nominal de empleados fijos en régimen laboral.

Auxiliar Administrativo: Doña Ana Isabel Erneta Erro.

Auxiliar administrativo: Doña María José Garralda Zubiri.

Empleado de servicios múltiples: Don Ivan Echeverz Balda

3.-Servicios agrupados con los Ayuntamientos de Orreaga-Roncesvalles y Valle de Erro.

Denominación del cargo: Secretario. Número de plazas: 1. Forma de la provisión: Concurso-oposición. Nivel A. Complementos puesto de trabajo: 40%, Incompatibilidad 35% Jornada Completa.

Relación nominal de personal contratado en régimen administrativo

Ezcurra Irure, M<sup>a</sup> Soledad. Secretaria interina. Situación: Activo.

Toma la palabra el concejal Sr. Martinez Rey que pregunta porque hay diferencia entre los complementos del personal administrativo y del empleado de serivios múltiples, todos del nivel D, entendiendo que respecto al cuerpo administrativo se debería estudiar y revisar los mismos para conseguir una equiparación salarial, dando el alcalde Sr. Garrada su conformidad.

## **6.- CONVOCATORIA PROVISION JUEZ DE PAZ TITULAR Y SUSTITUTO**

Toma la palabra el alcalde Sr. Garralda que informa que como han transcurrido cuatro años desde el nombramiento de los últimos Jueces/zas de Paz, titulares y sustitutos/as, procede en cumplimiento de lo dispuesto en la Ley Orgánica del Poder Judicial y en el Reglamento 3/1995, de 7 de junio, de los Jueces de Paz, sacar convocatoria pública para la provisión de los cargos de Juez de Paz titular y sustituto.

Visto lo cual, se acuerda por unanimidad, sacar convocatoria pública para la provisión de los cargos de Juez de Paz titular y sustituto procediendo a su publicación en el Boletín Oficial de Navarra, a fin de que las personas que se consideren interesadas presenten sus solicitudes en la Secretaría Municipal.

## **7.- URBANISMO:**

### **7.1. APROBACION DEFINITIVA ESTUDIOS DE DETALLE:**

**Juan Cruz Olondriz, parcela 5, pol. 1 de Zilbeti**

**Miguel Armendariz Fernandez, parcela 58, pol. 7 de**

**Bizkarreta/Gerendiain**

### **7.2. EMOT**

**7.1.1.-** Toma la palabra el alcalde Sr. Garralda que informa de que aprobado inicialmente mediante resolución de alcaldía nº 23 de 22 de febrero de 2019, Estudio de Detalle promovido por Juan Cruz Olondriz, que afecta a la parcela 5, polígono 1 de Zilbeti, con el objeto de definir las condiciones de la edificación en la parte segregada de la parcela 5, y habiendo estado expuesto al público tras su publicación en el BON nº 55 de 21 de marzo de 2019 sin que se presentaran alegaciones en el periodo legal establecido, procede la aprobación definitiva del mismo.

Tras lo cual, se acuerda por unanimidad:

1º.- Aprobar definitivamente el Estudio de Detalle, promovido por Juan Cruz Olondriz, que afecta a la parcela 5, polígono 1 de Zilbeti.

2º.- Remitir el presente acuerdo al Departamento de Desarrollo Rural, Medio Ambiente y Administración Local, a efectos informativos de conformidad con el art. 74 en correlación con el art. 79 de la Decreto Foral Legislativo 1/2017, de 26 de julio, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley Foral de Ordenación del Territorio y Urbanismo.

**7.1.2.-** Toma la palabra el alcalde Sr. Garralda que informa de que aprobado inicialmente mediante resolución de alcaldía nº 21 de 14 de febrero de 2019, Estudio de Detalle promovido por Miguel Armendariz Fernandez, que afecta a la parcela 498, polígono 7 de Bizkarreta/Gerendiain, con el objeto de ampliar las instalaciones exsistentes con un espacio cubierto complementario al uso hosteleoro existente en la parcela, y habiendo estado expuesto al público tras su publicación en el BON nº 38 de 25 de febrero de 2019 sin que se presentaran alegaciones en el periodo legal establecido, procede la aprobación definitiva del mismo.

Tras lo cual, se acuerda por unanimidad:

1º.- Aprobar definitivamente el Estudio de Detalle, promovido por Miguel Armendariz Fernandez, que afecta a la parcela 498, polígono 7 de Bizkarreta/Gerendiain.

2º.- Remitir el presente acuerdo al Departamento de Desarrollo Rural, Medio Ambiente y Administración Local, a efectos informativos de conformidad con el art. 74 en correlación con el art. 79 de la Decreto Foral Legislativo 1/2017, de 26 de julio, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley Foral de Ordenación del Territorio y Urbanismo.

## **7.2.- EMOT**

Presentado por el equipo redactor del plan municipal de Erro, el documento de la EMOT, se informa de su exposición publica en el BON durante el plazo de un mes para presentar sugerencias y de que se estan haciendo reuniones por todos los pueblos informando sobre el mismo. Siendo conveniente a su vez, pasarlo por sesión para darle el visto bueno.

Se acuerda por unanimidad aprobar el documento de la EMOT, presentado por el equipo redactor de Teresa Nebreda.

## **8.- APROBACION CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE AYUNTAMIENTO DE ERRO Y "NAVARRA DE SUELO Y VIVIENDA S.A."**

## **PARA LA PROMOCIÓN Y EJECUCIÓN DE LA RUTA CICLABLE DE MOVILIDAD SOSTENIBLE LOCAL – EUROVELO 3 (ERRO)**

Toma la palabra el alcalde Sr. Garralda que informa sobre el proyecto EuroVelo que es la red europea de rutas ciclistas de larga distancia que conectan todo el continente y que promueve NASUVINSA.

De entre todas ellas, la EuroVelo 3 (EV-3) “Ruta de los Peregrinos” (Trondheim-Santiago de Compostela) discurre por la Comunidad Foral de Navarra y como pasa por término municipal de Erro, se propone firmar un convenio por el que Nasuvinsa se encarga del proyecto y su ejecución y el Ayuntamiento adquiere el compromiso de posteriormente mantener la ruta ciclable de movilidad sostenible local EuroVelo 3 en el tramo de su propiedad, durante al menos los ocho años siguientes a la adecuación de la vía

A la vista de lo cual se acuerda por unanimidad ratificar el acuerdo adoptado en resolución y aprobar el convenio remitido por Nasuvinsa en todos sus términos.

### **9.- SOLICITUD ELUTSEDER**

Toma la palabra el alcalde Sr. Garralda que da lectura por un lado, al escrito presentado por Elutseder y dirigido a los dos grupos municipales que conforman el Ayuntamiento y por el que les hace partícipes de la intención que tienen de editar y publicar un libro sobre canciones antiguas vascas perdidas del Valle de Erro, titulado “Erroibarko Aire Zaharretan. Viejas Canciones Vascas de Valderro” (Autor: Txema Hidalgo “Kapare”), así como de la necesidad de que el Ayuntamiento colabore no solo económicamente sino también se pide apoyo institucional explícito en la difusión, la comunicación y en la propia publicación ya que consideran que una de las labores y responsabilidades del Ayuntamiento es velar por su patrimonio. El alcalde explica que hablando con Adriana Marmaun para saber la cuantía del proyecto, todavía no se tenía claro este tema, si bien si iban a tener subvención del Gobierno de Navarra. Toma la palabra el concejal Sr. Martienez Rey, que pareciéndole muy interesante el proyecto porque antes había mucha tradición, mucha cultura de canto en este valle, con documentación de la zona, parte se ha perdido y estaría muy bien recuperarlo. Por su parte, entendiendo que el Ayuntamiento efectivamente tiene deber de cuidar su patrimonio, se compromete a promocinarlo, a divulgarlo el día del Valle, en las escuelas, en la radio, a travles de la revista Mendixut etc. Finalmente y respecto a la parte económica propone asumir la parte que no venga cubierta por el Gobierno de Navarra. El alcalde Sr. Garralda estando de acuerdo con lo dicho por el concejal, da paso a la votación, acordándose por unanimidad asumir la parte de coste no financiada por el Gobierno, y participar en la promoción y difusión del libro.

Y por otro, al escrito presentado por Adriana Marmaun en representación de la Asociación Euskal Artzainak Ameriketan, en el que informando de que el próximo 7 de septiembre de 2019 tendrá lugar en la localidad de Erro, la fiesta que Euskal Artzainak Ameriketan organiza anualmente, solicitan ayuda para sufragar los gastos de almuerzo para 600 personas, instalación carpa y servicio de ambulancia. Respecto a este evento habiendo sido aprobada en los presupuestos una partida de 7.000 euros para financiar esta actividad, se acuerda por unanimidad, asumir el coste de los gastos solicitados hasta

7.000,00 previa justificación del gasto realizado, trasladando a la Asociación Euskal Artzainak Ameriketan el acuerdo adoptado.

#### **10.- ADHESION A CONVENIO MARCO DE COLABORACIÓN ENTRE LA HACIENDA TRIBUTARIA DE NAVARRA Y LA FNMC PARA EL INTERCAMBIO DE INFORMACIÓN Y COLABORACIÓN EN LA GESTIÓN E INSPECCIÓN TIBUTARIA.**

Toma la palabra la Secretaria, que informa del Convenio Marco de Colaboración firmado entre la Hacienda Tributaria de Navarra y la FNMC para el intercambio de información y colaboración en la Gestión e Inspección Tributaria, y la posibilidad de las Entidades Locales de Adherirse a él, de forma que la HTN pone a disposición de los municipio recursos e instrumentos con los que cuenta para ser emplados en el cumplimiento de los fines y principios de la actividad tributaria municipal y que a su vez contribuye al cumplimiento de los fines propios de la Hacienda. Informando a su vez que la adhesión al convenio no supone coste alguno par ael Ayuntamiento.

A la vista de lo cual se acuerda por unanimidad, solicitar la adhesión al convenio a los efectos de intercambio de información, trasladando el acuerdo y solicitud al Servicio de Asistencia e Información al Contribuyente del Organismo Autónomo Hacienda Tributaria de Navarra

#### **11.- APROBACION INICIAL ORDENANZA MUNICIPAL PARA EL DESPLIEGUE DE REDES DE ACCESO A SERVICIOS DE TELECOMUNICACIONES DE NUEVA GENERACIÓN (RASTNG) EN FORMATO UNIVERSAL**

Se propone aprobar inicialmente una ordenanza municipal reguladora del despliegue de redes de acceso a servicios de telecomunicaciones de nueva generación, con el objetivo de adaptar el nuevo marco normativo europeo y estatal al ámbito local de una forma clara y estable para, entre otras razones,

1. Dar cumplimiento a las Directivas Europeas, el ordenamiento jurídico aplicable a nivel estatal y de las CCAA, y a la vez desarrollar las competencias que son propias de los municipios en aquellas cuestiones relacionadas, como por ejemplo aspectos urbanísticos y de impacto visual o el aseguramiento de la transparencia y la no discriminación.
2. Facilitar el despliegue de las redes de acceso a servicios de telecomunicaciones de nueva generación (RASTNG ).
3. Facilitar el despliegue de las infraestructuras conectadas necesarias (dispositivos, sensores, actuadores, etc.) con tal de desarrollar nuevos y mejores servicios públicos
4. Proporcionar acceso real a la ciudadanía y a la sociedad en general a una oferta asequible y variada de servicios de telecomunicaciones.
5. Establecer de antemano unos criterios generales para que los anteriores puntos se apliquen de la forma más ágil posible, sin tener que improvisarlos en el momento de llevar a cabo los despliegues.

A la vista de lo cual, se acuerda por unanimidad de conformidad con lo dispuesto en el artículo 325.1 de la Ley Foral 6/1990, de 2 de julio, de la Administración Local de Navarra, aprobar inicialmente la Ordenanza municipal reguladora del despliegue de

Redes de acceso a servicios de telecomunicaciones de nueva generación en formato UNIVERSAL. Dicha ordenanza, se somete a información pública durante treinta días hábiles, a contar desde el siguiente a la publicación de este anuncio en el Boletín Oficial de Navarra, para que las personas interesadas puedan examinar el expediente y formular reclamaciones, reparos u observaciones. Si transcurrido el periodo de exposición pública no se formularan ninguna, la Ordenanza quedará definitivamente aprobada, procediéndose a la publicación de su texto íntegro en el Boletín Oficial de Navarra.

## **12.- INFORMACION VARIA**

El alcalde Sr. Garralda, informa sobre los siguientes puntos:

### **Reforma consultorio médico**

Se informa que solicitada subvención para la reforma del consultorio médico de Erro se ha dictado resolución concediendo la cantidad de 153687 euros. Así mismo, y dado que la reforma de la vivienda de la casa del médico y los baños . se aprueba adjudicarle la obra a Construcciones García Zalba. El alcalde emitirá la correspondiente resolución.

Toma la palabra el concejal Sr. Martínez Rey que informa que con la reforma de la cocina van a venir a colocar la caldera

La Corporación se da por enterada.

### **Resolución 100/2019 de 27 de marzo: Intervención arqueológica-exhumación represaliados**

Se informa de la Resolución 100/2019 de 27 de marzo, dictada pro la Directora General de Cultura-Institución Príncipe de Viana, por la que se autoriza la realización de una intervención arqueológica de urgencia para la exhumación de represaliados de la guerra civil en la sima de Ardaitz, ya que debe haber los cuerpos de dos hombres asesinados tras la fuga de la prisión de San Cristobal.

La Corporación se da por enterada.

### **Resolución 11/2019 de 17 de abril, GR-225 (Lugar de Memoria Histórica de Navarra)**

Se informa de la Resolución 11/2019 de 17 de abril, dictada por el Director General de la Dirección General de Paz, Convivencia y Derechos Humanos, por la que se inicia el procedimiento de declaración e inscripción del Sendero de Gran Recorrido GR-225 como Lugar de Memoria Histórica de Navarra, y ello debido a que rememora al ruta que siguieron los presos fugados del Fuerte de San Cristobal la tarde de 22 de mayo de 1938.

Corporación se da por enterada.

### **Solicitud Apyma de Erro**

A continuación se da lectura al escrito formulado por la Asociación de Padres y Madres Erroibar donde exponen que durante los meses de junio y septiembre debido a que no hay clases por las tardes en el entro escolar no hay tampoco servicio de comedor, por ello solicitan al Ayuntamiento permiso para continuar esos dos meses con el servicio de comedor así como subvención para financiar el mismo igual que el resto de los meses. Finalmente quieren saber también si sería posible financiar el transporte de aquellos niños que usen el servicio de comedor.

Se propone mantener una reunión con los representantes de la asociación y cuando se tengan más datos tratarlo en el Ayuntamiento.



### **Cajas de murciélagos**

Se informa de la solicitud de autorización formulada por la Sección de Gestión de la Comarca Pirenaica del Gobierno de Navarra para colocar cajas-refugio para murciélagos en diferentes puentes de la Comarca Pirenaica durante el año 2019, y que en el Valle de Erro afecta a dos puentes, en paraje Errekazarreta y en Urniza. Dentro del estudio que se está haciendo sobre murciélagos en la Zona Pirenaica de Navarra con el fin de mejorar su conservación y proporcionar refugios apropiados para ellos.

Se acuerda por unanimidad dar el visto bueno a la petición formulada.

### **Reclamación Maitane Nagore por daños en vehículo**

El alcalde da cuenta de la reclamación que formula Maitane Nagore, por los desperfectos que su vehículo sufrió al pasar por un bache que no estaba debidamente señalizado en zona de obras en Aurizberri/Espinal, informando a su vez que trasladará el tema al seguro del Ayuntamiento para que se haga cargo del tema.

La Corporación se da por enterada

### **Información tuberculosis-retirada de Sorogain**

Se informa por el Alcalde, que una de las reses de ganado de un ganadero de Erro, en un primer momento dio positivo en tuberculosis, posteriormente se le dijo que no y le levantaron la veda, pero hoy mismo ha llamado al veterinario del Gobierno de Navarra y les ha requerido después de haber dicho que tenía todas las vacas en buen estado, que retiraran las vacas de Sorogain. Lo que genera un grave problema, ya que, tienen que retirarlas de Sorogain pero trasladarlas a otro sitio, ocupado por otra parte por ganado de otros ganaderos, en este caso, del ganado del propio alcalde, que a su vez también necesita dejarlas en algún sitio, de manera que todas puedan caber. En fin un serio problema que de alguna se tiene que resolver cuanto antes.

La Corporación se da por enterada

### **Residencia Amavir**

Se informa de la Asamblea celebrada donde por un lado, se aprobaron las cuentas por unanimidad, pero por otro, se está a expensas de los nuevos conciertos porque todavía no se sabe como va quedar, ya que aunque se han pedido 40 plazas concertadas se desconoce que va a pasar y por tanto hay que esperar a que se aprueben dichos conciertos. El concejal Sr. Martínez Rey pregunta que porcentaje de participación tenemos, contestando el alcalde Sr. Garralda que el 41,5%.

### **Mancomunidad Auñamendi-ayudas estatales violencia de género**

Toma la palabra el concejal Sr. Martínez Rey, que en relación con las ayudas estatales sobre violencia de género y el destino de las mismas, informa de que creado el grupo de trabajo y estudiando diferentes posibilidades donde destinar dichas ayudas, se acordó realizar un programa de actividades destinado tanto a los trabajadores de las entidades locales, como a los corporativos y todos aquellos que trabajen en bares, sociedades etc., con el fin de ayudar a saber como reaccionar y actuar ante determinadas situaciones. Se van a dar unos cursos en tres localidades Luzaide (Ayto), Lintzoain (Ayto) y Aribe (Casas del Valle). En todo caso para el 1 de junio hay que presentar ante el Gobierno Central las facturas de las actuaciones llevadas a cabo.

## **10.- RUEGOS Y PREGUNTAS**

No se formulan.

Tras lo cual y sin más asuntos que tratar siendo las 20,20 horas del mismo día se levantó la sesión de lo que doy fe.

Erroibarko Udaletxean, 2019ko maiatzaren 8ko 18:30ean, Erroibarko Udala bildu zen bilkura berezia egiteko. Bertaratu ziren zinegotziak: Jesús Esteban Juanarena Apestegüia, Álvaro Villanueva Azcarate, Miguel Echamendi Hernández, Jokin Martínez Choperena, Joseba Martínez Rey eta Eduardo Urtasun Vidondo, bilkura buru alkatea, Enrique Garralda Erro izan zen, eta idazkaria, udalbatzarena, Marisol Ezcurra Irure.

Gai zerrendako lehenengoari ekin baino lehen EH Bildu taldeko zinegotziak, Martínez Rey, jakinarazi du bilkura grabatu behar duela.

#### **1.- 2019KO OTSAILAREN 6KO ETA 27KO ETA APIRILAREN 2KO BILKUREN AKTEN ONESPENA.**

Martínez Rey zinegotziak hitza hartu du eta idazkariak aktei buruz aurkeztu zuen idazkiaren erantzuna irakurri du,

*“2019ko maiatzaren 8a, ibarreko etxean, Lintzoain,*

*Bi mila eta hemeretziako otsailaren hogeitazazpiko bilkuran Marisol Ezcurra Irurek aurkeztu zuen idazkiari erantzunez, EH Bildu udal taldeak honakoa adierazi nahi du:*

*- Gure taldeak ez zuen dokumentu horren berri izan 2019ko otsailaren 27an egindako bilera arte.*

*- Gure ustez akten zenbait puntu zehatzek, berriro diogu, puntu zehatzek, ez dute gertatua isladatzen eta hori berresten dugu.*

*- Gure ikuspuntutik eta gure iritziz, eztabaida politikoa gertatzen denean akta idazteko modua subjektiboa da.*

*- Azpimarratu nahi dugu gure helburua eta lana ez dela idazkariaren edo beste langileen aurka joatea. Erakundearen funtzionamendu egokiaren alde egin dugu beti. Gure ikuspuntua isladatu dugu, idazketaren gaiarekin sentitzen dugun ezintasuna eta batzuetan asperraldia argi utziz.*

*- EH Bildu taldetik berriro diogu aktak epe motzagoetan idatzita egon beharko luketela eta gobernu taldeak (EIT) nahi balu bilkurak audioan grabatuko lirateke. Horrela konponbide erraza daukan afera behin eta berriro agertzea saihestuko genuke.*

*- Azkenik eta gobernu taldeak eta Marisol Ezcurra Irurek ongi dakiten bezala, EH Bildu taldea prest dago erakunde honen funtzionamendua hobetuz laguntzeko, aspalditik adierazi dugun moduan. Prest gaude akten gardentasuna, objektibotasuna eta hedapena hobetzen laguntzeko. Ez dugu denbora gehiago galdu nahi arazoari irtenbidea ematen ez dioten eztabaidekin.*

*Uste dugu gaia erraz konpon daitekeela denok prest egonez gero.*

*EH Bildu Erroibar.”*

Alkateak, Garralda jk., hitza hartu du eta esan du aktetan bilkuretan esaten dena biltzen dela eta ongi daudela uste duela.

2019ko otsailaren 6ko eta 27ko eta apirilaren 2ko aktei dagokienez, ez dago esateko ezer, eta aho batez onartu dira.

## **2.- 2019ko OTSAILAREN 23TIK APIRILAREN 30ERA EMANDAKO ALKATE EBAZPENAK**

Alkateak, Garralda jk., 2019ko otsailaren 23tik apirilaren 30era emandako ebazpenen gaineko informazioa eman du. Zinegotziak jakitun dira.

Martinez Choperena zinegotziak honako ebazpenei buruzko informazioa eskatu du:

Obrak geldiarazteko 31/2019 zkia. duen Ebazpena. Obrak geldiarazteko arrazoia lizentziarik gabe egiten ari zirelako eman zen ebazpena.

32/2019 zkia. duen Ebazpena, etxebizitza egiteko obra baimena eman baino lehenagoko arauak bete izanari buruzkoa, justifikazioa eskatu zaio eraikitze gehienekoa ez datorrelako bat udal planaren arautegiarekin. Sustatzailearekin eta haren arkitektoekin izandako bileraren ondoren gaia konpondu dela dirudi.

47. zkia duen Ebazpena, jarduera sailkatuaren titulartasunaren aldaketa da, jarduera bera da baina titularra aldatu da, datuak eguneratu eta irekitzeko lizentzia aldatu behar dira, eta lokalak baldintzak betetzen dituela frogatzen duten ziurtagiriak aurkeztu dira.

70. zkia. duena Ebazpena, kirolarentzako laguntzak ematen dituen ebazpena aldatzeko. Kirol-jarduerentzako laguntzak eskatu zituztenek horien gaineko dokumentazioa auzeratu dute eta hasierako ebazpena aldatu behar da, benetan egindako jardueren egokitzeko.

75. zkia. duen Ebazpena, erakina konpontzeko obra baimena eman baino lehen hondakinengatik ordaindu behar duen kanona ezinbestekoa dela jakinarazten zaio.

## **3.- 2018ko KONTUEN HASIERAKO ONESPENA**

Alkateak, Garralda jk., jakinarazi du Kontuen Batzordean azaldutakoarekin bat eginez, 2018ko udal kontuen edukia azaldu du, eta deigarria dela oreka eman dela urtean zehar diru-sarreraren eta irteeren artean eta gastu orokorretarako diruzaintzako soberakina 1.014.636,04 eurokoa dela, eta esan du Aurrekontuen Egonkortasunaren Legeari dagokionean ez dela gastuaren araua eta aurrekontuen egonkortasuna betetzen, urtean zehar inbertsioak egin baitira eta 2019an ez direla horrelako inbertsiorik egingo. Hala ere azpimarratu nahi du diru-sarrera gehiago egon direla gastu baino, eta hori inportantean dela Udalaren finantza-ahalmena mantentzeko. Modu berean idazkariak egoera isladatzen duen txostena eta finantza eta ekonomia plana erantsi ditu.

Martinez Rey zinegotziak hitza hartu du eta esan du idazkariarekin hainbat zalantza argitu ondoren, besteak beste Euskarbidearen diru-laguntza beste kontu-sail batean dagoela, bere taldeak ez duela 2018ko kontuak onesteko inolako arazorik.

Hortaz, Udaltzako erabaki du aho batez 2018ko Kontuen espedientea hasiera batean onartzea, baita txostenari erantsitako finantza eta ekonomia plana ere.

## **4.- 2019ko AURREKONTUAREN HASIERAKO ONESPENA**

Alkateak, Garralda jk., hitza hartu du eta esan du 2019ko aurrekontuaren txostenari dagokionean, hura ere batzordean landua, alde batetik udalbatza osatzen duten taldeek proposatutakoa biltzen duela eta bestetik Aurrekontuen Egonkortasunaren Legeari jarraituta egin dela. Aurrekontuan Esnozko zolaketa eta sareak berritzeko lanak, baso-lanak, abeltzaintzako azpiegiturak, eta abar sartzen dira.

Martinez Rey zinegotziak hitza hartu du eta aurrekontuekin ados daudela dio baina 500 euroko kontu-saila gehitzea proposatu du Pirinioko Turismo langilea kontratatzeko, aurrekontua aldatzea eta Kintoko kontu sailarekin orekatzea.

Gaiari dagokionean, jakinarazi da Pirinioko Mahaiaren idatzia ailegatu dela eta hor esaten dela Pirinioan turismoa sustatzeko pertsona bat Cedernaren bidez kontratatzeko proposamena 2020rako utzi dela. Martinez Rey zinegotziak hitza hartu du eta esan du ez dagoela ados Rural Kutxak kontuengatik kobratzen duenarengatik, eta alkateak esan du Rural Kutxarekin mintzatuko dela gai horri buruz.

Horiek horrela, Udalbatzak erabaki du aho batez, 2019ko aurrekontuaren espedientea hasiera batean onartzea, 1.360.191,59 eurotan, eta hari izapidea ematea eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

## **5.- 2019ko PLANTILLA ORGANIKOAREN HASIERAKO ONESPENA**

Alkateak, Garralda jk., hitza hartu du eta 2019ko plantilla organikoari buruzko informazioa eman du.

Aho batez honakoa onetsi da:

1.- 2019ko plantilla organikoa onartzea hasiera batean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

1.- Funtzionarioak:

Lanpostua: Zerbitzu Anitzetako Langilea. Plaza kopurua: 1 Lanpostua: Zerbitzu Anitzetako Langilea. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: Oposizio-lehiaketa murriztua (barne igoera). Maila: D. Lan egoera: Jardunean. Mailako osagarria %15. Lanpostuko osagarria %35,77. Lanaldi osoa, Lanaldiaren luzapeneko osagarria %10, Gidatzeko baimena B.

- Funtzionarioen izen-zerrenda.

Z.A.L.: Xabier Zía Urrutia.

2.- Langile finkoak

Lanpostua: Administrari Laguntzailea. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: Oposizio-Lehiaketa. Maila: D. Lan egoera: Jardunean. Mailako osagarria: %12, Lanpostuko osagarria: %30,20. Lanaldiaren luzapeneko osagarria %10. Lanaldia: 71,44%.

Lanpostua: Administrari Laguntzailea. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: Oposizio-Lehiaketa. Maila: D. Lan egoera: Jardunean. Mailako osagarria: %12, Lanpostuko osagarria: %30,20. Lanaldiaren luzapeneko osagarria %10. Lanaldia: 71,44%.

Lanpostua: Zerbitzu Anitzetako Langilea. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: Oposizio-Lehiaketa. Maila: E. Lan egoera: Jardunean. Mailako osagarria: 15%. Lanpostuko osagarria %8,77, Lanaldia: 29,33%.

- Lan kontratudun finkoen izen-zerrenda.

Administrari laguntzailea Ana Isabel Erneta Erro.

Administrari laguntzailea: María José Garralda Zubiri.

Zerbitzu Anitzetako Langilea.

3.- Orreaga eta Aurizko Udalekin bateratutako zerbitzuak.

Kargua: Idazkaria. Plaza kopurua: 1. Sarbidea: Oposizio-Lehiaketa. A Maila. Lanpostuko osagarriak: %40, Bateriaezintasuna %35 Lanaldi osoa.

Administrazio lan araubidean kontratatutako langileen izen-zerrenda:

Ezcurra Irure, M<sup>a</sup> Soledad. Bitarteko idazkaria. Lan egoera: Jardunean.

Martinez Rey zinegotziak hitza hartu du eta galdetu du zergatik dauden diferentziak administrazio langileen eta zerbitzu anitzetako langileen artean guztiak D mailakoak baldin badira, eta uste duela administrariei dagokienez bere egoera aztertu eta berrikusi beharko litzatekeela.

## **6.- BAKE EPAILE TITULARRA ETA ORDEZKOA**

Alkateak, Garralda jk., hitza hartu du eta jakinarazi du bake-epailea eta haren ordezkoa izendatu zirenetik lau urte pasatu direla eta Botere Judizialeko Lege Organikoaren eta Bake Epaileen ekainaren 7ko 3/1995eko Arautegiaren arabera, deialdi publikoa egin behar dela Bake Epailea eta haren ordezkoa izendatzeko.

Hortaz, aho batez erabaki da Bake Epailea eta haren ordezkoa izendatzeko deialdia egitea, Nafarroako Aldizkari Ofizialean iragarritz, interesaturik egon daitekeen orok eskaera udal idazkaritzan egin dezan.

## **7.- HIRIGINTZA:**

### **7.1 XEHETASUN AZTERLANA. BEHIN BETIKO ONESPENA:**

**Juan Cruz Olondriz, Zilbetiko 1 poligonoko 5 lurzatia**

**Miguel Armendariz Fernandez, Bizkarreta-Gerendiango 7 poligonoko 58 lurzatia**

### **7.2. LOEE:**

Alkateak, Garralda jk. hitza hartu du eta jakinarazi du 2019ko otsailaren 22ko 23 zkia. duen alkate-ebazpen bidez, Zilbetiko 1 poligonoko 5 lurzatian, Juan Cruz Olondrizek sustatu duen Xehetasun Azterlana onetsi zuela, eta haren helburua dela Udal Planak lurzati horretan ezarritako lerrokadurak aldatzea, eta 2019ko martxoaren 21eko 55 zkia, duen NAOn argitaratu ondoren ezarritako epean alegaziorik egon ez denez, hura behin betiko onartu behar dela.

Ondoren, aho batez erabaki da:

1.- Juan Cruz Olondrizek Zilbetiko 1 poligonoko 5 lurzatian sustatu duen Xehetasun Azterlana behin betiko onartzea.

2.- Erabaki hau Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentura igortzea, Nafarroan Hirigintza Iraunkorra laguntzeko neurriei buruzko 5/2017 Foru Legeak aldatu duen Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2001 Foru Legearen 74. Artikulua garatzen duen 76. Artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

**7.1.2.-** Alkateak, Garralda jk., hitza hartu du eta jakinarazi du Miguel Armendariz Fernandezek Bizkarreta-Gerendiango 7 poligonoko 498 lurzatian sustatu duen

Xehetasun Azterlana, 2019ko otsailaren 14ko 21. Ebazpenaren bidez hasiera batean onartu zuela; haren bidez instalazioei eremu estali bat gehitu nahi zaie lurzatian bertan eta jendaurrean egon den bitartean 2019ko otsailaren 25eko 38 zkia, duen NAOn argitaratu ondoren ez dela alegaziorik aurkeztu, eta, hortaz, behin betiko onetsi behar da.

Ondoren, aho batez erabaki da:

1.- Bizkarreta-Gerendiango 7 poligonoko 498 lurzatian Miguel Armendariz Fernandezek sustatu duen Xehetasun Azterlana behin betiko onartzea.

Erabaki hau Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentura igortzea, Nafarroan Hirigintza Iraunkorra laguntzeko neurriei buruzko 5/2017 Foru Legeak aldatu duen Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2001 Foru Legearen 74. Artikulua garatzen duen 76. Artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

## **7.2.- LOEE:**

Erroibarko udal plana prestatzen ari den taldeak LOEE dokumentua aurkeztu du eta NAOean argitaratuko da hilabeteko epean hilabeteko epean iradokizunak aurkez daitezzen eta herri guztietan bilerak egiten ari direla haren gaineko informazioa emateko. Komenigarria da osoko bilkuran ere oniritzia ematea.

Aho batez erabaki da LOEE dokumentua onartzea, Teresa Nebredaren taldeak aurkeztua.

## **8.- TOKIKO MUGIKORTASUN JASANGARRIKO BIZIKLETENTZAKO BIDEA – EUROVELO 3 (ERRO) SUSTATU ETA GAUZATZEKO ERROIBARKO UDALAREN ETA NASUVINSAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENAREN ONESPENA.**

Alkateak, Garralda jk., hitza hartu du eta jakinarazi du EuroVelo proiektua distantzia luzeko bizikleten ibilbideen Europako sarea dela, kontinente osoan zabaldua eta NASUVINSAK sustatu duela.

Horien artean EuroVelo 3ak (EV-3) “Erromesen Bidea” (Trondheim-Konpostelako Santiago) Nafarroako Foru Komunitatea zeharkatzen du eta Erroibartik pasatzen denez, Nasuvinsarekin hitzarmena sinatzea proposatu da, hark proiektuaz eta hura egiteaz arduratuko baita, eta Udalak ibilbide hori berea den zatian mantentzeko konpromezua hartzen du egiten denetik 8 urteko epean.

Horiek horrela, aho batez erabaki da ebazpenean hartutako erabakia berrestea eta Nasuvinsak igorri duen hitzarmena bere osotasunean onartzea.

## **9.- ELUTSEDER ELKARTEAREN ESKAERA**

Alkateak, Garralda jk., hitza hartu du eta alde batetik Elutseder elkarteak Udala osatzen duten bi taldeei aurkeztu dien idazkia irakurri du eta horretan esaten da Erroibarko kantu zaharren liburua argitaratzeko asmoa duela, “Erroibarko Aire Zaharretan” Viejas Canciones Vascas de Valderro” (Egilea: Txema Hidalgo “Kapare”), eta beharrezkoa dela Udalak ekonomikoki laguntzeaz gain hura zabaltzeko eta hedatzeko laguntzea ere beharrezkoa dela, Udalaren zereginetako bat bere ondasuna zaintzea baita. Alkateak azaldu du Adriana Marmaunekin hitz egin duela proiektuaren aurrekontua jakiteko baina oraindik ez dutela argi, dakitena da Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza izango

dutela. Martinez Rey zinegotziak hitza hartu du eta proiektua interesgarria iruditzen zaiola dio, lehenago ibarrean kantatzeko ohitura handia zegoelako eta ongi egongo litzatekeela informazio hori berreskuratzea. Bere aldetik uste du Udalak bere ondarea babestu behar duela eta Ibarreko egunean, baita eskoletan, irratian, Mendixut aldizkarian sustatzeko konpromisoa hartu du. Azkenik proposatu du Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzak estaltzen ez duen zatia Udalak bere gain hartzea. Alkateak, Garralda jk., dio ados dagoela zinegotziak esan duenarekin eta bozketa egin da eta aho batez erabaki da Gobernuak estaltzen ez duen zatia ordaintzea eta liburuaren sustapenean eta hedapenean parte hartzea.

Eta beste aldetik Adriana Marmaunek Euskal Artzainak Ameriketara Elkartearen izenean aurkeztu duen idazkia irakurri da eta horretan esaten da 2019ko irailaren 7an Erron Euskal Artzainak Ameriketara festa ospatuko dela eta gosariaren gastua, 600 pertsonentzako, karpa jartzea eta anbulantzia zerbitzuaren gastua Udalak bere gain hartzea. Festari dagokionez, aurrekontuan 7000 euroko kontu-saila onartu da eta aho batez erabaki da eskatutako gastuei aurre egiteko 7000 euro arteko kostua bere gain hartzea eta hartutako erabakia Euskal Artzainak Ameriketara Elkarteari jakinaraztea.

#### **10.- ZERGA-SISTEMA ETA IKUSKARITZAREKIKO INFORMAZIO TRUKAKETA ETA LANKIDETZARAKO NAFARROAKO OGASUNAREN ETA NUKFAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENAREKIN BAT EGITEA**

Idazkariak hitza hartu du eta jakinarazi du Nafarroako Ogasunaren eta NUKFaren artean Zergen kudeaketa eta ikuskaritzari buruzko informazioa trukatu eta elkarlanean aritzeko Lankidetzaren Hitzarmena sinatu dutela eta Toki Entitateek harekin bat egiteko aukera dutela; modu horretan NZOk udalen esku jarriko ditu bereak dituen baliabideak udalaren zerga-jardueraren helburuak eta oinarriak betetzeko eta, aldi berean, Ogasunarenak bereak diren helburuak betetzen lagunduz. Eta jakinarazi du hitzarmenarekin bat egiteak ez dioela gainkosturik ekartzen Udalari.

Horiek horrela, aho batez erabaki da informazioa trukatzeko hitzarmenarekin bat egiteko eskatzea, erabakia eta eskaera Nafarroako Zergen Ogasuneko Erakunde Autonomoaren Zergadunen Laguntza eta Informazio Zerbitzura bidaltzea.

#### **11.- BELAUNALDI BERRIKO TELEKOMUNIKAZIO ZERBITZUAK ESKURATZEKO SAREAK HEDATZEA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZAREN HASIERAKO ONESPENA.**

Belaunaldi berriko telekomunikazio zerbitzuak eskuratzeko sareak hedatzea arautzen duen ordenantza hasiera batean onartzea proposatu da, Europako eta estatuko arautegi marko berria toki entitateen eremura egokitzeko modu argi eta iraunkorrean, besteak beste,

1. Europako zuzentarauak eta estatu mailan eta komunitate autonomoetan aplikagarria den arautegi juridikoa betetzea, eta, aldi berean, gaiarekin zerikusia duten aferetan udalerriek dituzten eskumenak garatzea, besteak beste hirigintzakoak eta ikus-inpaktuari dagozkionak baita gardentasuna eta diskriminazio eza bermatzea ere.

2. Belaunaldi berriko telekomunikazio zerbitzuak eskuratzeko sareak zabaltzea erraztea.

3. Beharrezkoak diren konexio-azpiegiturak hedatzea erraztea (gailuak, sentsoreak, eragingailuak, eta abar). zerbitzu publiko berriak eta hobeak garatzeko.

4. Herritarrei eta gizarteari telekomunikazio zerbitzuen eskaintza eskuragarria eta anitza izateko aukera ematea.

5. Aldez aurretik irizpide orokorrak ezartzea, lehen aipatutakoa ahal bezain azkar gauzatzeko, eta inprobisatzen ibili behar ez izateko.

Horiek horrela, aho batez erabaki da Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325.1 artikuluan xedatutakoari jarraituz, formatu unibertsaleko belaunaldi berriko telekomunikazio zerbitzuak eskuratzeko sareak hedatzea arautzen duen Udal Ordenantza hasiera batean onartzea. Ordenantza jendaurrean egonen da hogeita hamar egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, interesdunek espedienteaz aztertu eta erreklamazioak edo oharpenak egin ditzaten. Jendaurreko epean alegaziorik aurkeztuko ez balitz, Ordenantza behin betiko onetsiko da eta haren testu osoa Nafarroako Aldizkari Ofizialean emanen da argitara.

## **12.- BESTERIK**

Alkateak, Garralda jk., honako informazioa eman du:

### **Medikuaren kontsultategia berritzea**

Jakinarazi da Erroko medikuaren kontsultategia berritzeko diru-laguntza eskatu dela eta 153687 euroko laguntza lortu dela. Modu berean, medikuaren etxea eta komunak berritzeko lanak Garcia Zalba Eraikuntzei adjudikatzea erabaki da. Alkateak dagokion ebazpena emanen du.

Martinez Rey zinegotziak dio sukaldea berritzera etortzen direnean galdara jarriko dutela.

Udalbatza jakitun da.

### **Martxoaren 27ko 100/2019 Ebazpena: errepresaliatuak hobitik ateratzea-eskuhartze arkeologikoa**

Jakinarazi da Kultura-Bianako Printzea Erakundeko Zuzendari Nagusiak 100/2019 Ebazpena eman zuela martxoaren 27an eta haren bidez Ardaizko leizean dauden gerra zibileko gorpuak ateratzeko eskuhartze arkeologikoa egin behar dela urgentziaz eta horretarako baimena ematen da, dirudienez Ezkabako Gotorlekutik ihes egindako bi gizonen gorpuak dira.

Udalbatza jakitun da.

### **Apirilaren 17ko 11/2019 Ebazpena, GR-225 (Nafarroako Memoria Historikoaren Lekua)**

Jakinarazi da Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiko Memoria Ataleko buruak apirilaren 17an 11/2019 Ebazpena eman zuela eta haren bidez GR225 Ibilbide Luzea Nafarroako Memoria Historikoaren Toki deklaratzeko eta hala inskribatzeko prozedurari hasiera eman zaiola, horu guztia 1938ko maiatzaren 22ko arratsaldean Ezkabako gotorlekutik ihes egin zuten presoan ibilbidea gogorarazten baitu.

Udalbatza jakitun da.

### **Erroko Guraso Elkartearen eskaera**



Jarraian Erroibar Guraso Elkarteak egin duen eskaera irakurri da; horretan azaltzen dute ekainean eta irailean arratsaldean klaserik ez dagoenez, ez dagoela jantoki zerbitzurik eskolan, eta, hortaz, Udalarari eskatzen diote bi hilabete horietan jantoki zerbitzua emateko baimena ematea baita zerbitzua emateko diru-laguntza ere. Bukatzeko jakin nahi dute jantoki-zerbitzua erabiliko duten haurren garraioa ere laguntzea posible izango litzatekeen.

Elkarteko ordezkariekin bilera egitea proposatu da eta datu gehiago lortzea Udalean gaiaz hitz egitea.

#### **Saguzarren kutzak**

Jakinarazi da Nafarroako Gobernuak Pirinioko Eskualdeko Kudeaketa-Atalak baimena eskatu duela 2019an Pirinioko Eskualdeko hainbat zubitan saguzarrentzako babes-kutzak jartzeko, eta Erroibarren bi zubiri eragiten diela, Errekazarreta eta Urnizakoak. Nafarroako Pirinioan egiten ari den saguzarren ikerketaren barne kokatzen da eskaera, haien kontserbazioa hobetu nahi baita eta babes-leku egokiak eman nahi zaizkielako.

Aho batez erabaki da eskaerari baietza ematea.

#### **Ibilgailuan izandako kalteengatik Maitane Nagorek egin duen erreklamazioa**

Alkateak jakinarazi du Maitane Nagorek erreklamazioa aurkeztu duela Aurizberrin egiten ari diren obra batzuen ondotik pasatzean bere ibilgailuak kalteak izan zituelako, izan ere gaizki seinaleztaturik zegoen eta zulo batean sartu zen, eta esan du gaia Udalaren aseguru etxeari jakinaraziko zaiola.

Udalbatza jakitun da.

#### **Tuberkulosia-Sorogaindik azienda ateratzea**

Alkateak jakinarazi du Erroko abeltzain baten behi batek tuberkulosian emaitza positiboa izan zuela, gero ezetz esan ziotela eta gaur bertan Nafarroako Gobernuak albaitari batek deitu duela esanez behiak Sorogaindik atera behar dituela. Horrek arazo larria dakar, Sorogaindik behiak atera behar dituelako eta beste leku batera eraman, bertze abeltzain batzuek behiak dituzten bertze leku batera, besteak beste, alkatearen beraren azienda, baina nonbait sartu behar direla eta denentzako tokia egon behar duela. Azken finean arazo larria, lehen baino lehen konpondu beharrekoa.

Udalbatza jakitun da.

#### **Amavir Zahar Etxea**

Jakinarazi da Batzarra egin dela eta horretan kontuak aho batez onetsi zirela baina beste aldetik hitzarmen berrien menpe daudela 40 plaza hitzartu eskatu badira ere oraindik ez baitago argi zer gertatuko den eta hitzarmenak onartu arte itxoin behar baita. Martinez Rey zinegotziak galdetu du zein den Udalak duen portzentaia eta alkateak, Garralda jk., erantzun dio %41,5a.

#### **Auñamendi Mankomunitatea-genero indarkeriaren aurkako estatuko laguntzak**

Martinez Rey zinegotziak hitza hartu du eta generoaren indarkeriaren aurkako diru-laguntzei buruz esan du lan taldea osatu dela laguntza horiek zertan erabili erabakitzeke eta dauden aukerak aztertu ondoren, erabaki zela jardueren programa prestatzea, bai toki entitateetako langileentzako zein udalkideentzako eta taberna eta elkarteetan aritzen direnentzako, hainbat egoeren aurrean nola jokatu ikasteko. Ikastaroak emanen dira Luzaiden (udaletxean), Lintzoainen (Udaletxean) eta Ariben (Ibarreko etxean). Dena den ekainaren 1erako egin diren jardueren fakturak Estatuko Gobernuak aurkeztu behar dira.

## **10.- ESKARIAK ETA GALDERAK**

Ez daude.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez bilkurari bukaera eman zaio 20:20ean, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.